Andoaingo Udala

«AREATRAMITEE»

Kodea: 2021AKN20009

Baldintza Teknikoen Plegua **Pliego de Condiciones Técnicas**

Andoaingo udal liburutegiaren kokapena zehazteko alternatiben aurretiazko azterlana idazteko zerbitzuaren kontratua arautuko duten zehaztapen eta klausula teknikoak ezartzea

establecimiento de las especificaciones y cláusulas técnicas que regirán el contrato del servicio de redacción del estudio previo de alternativas para la determinación de la ubicación de la futura biblioteca municipal de Andoain

Kontratu mota Tipo de contrato	**Zerbitzuak** / Servicios	**Prozedura** Procedimiento	**Irekia** / Abierto	**Esp. Kodea** Código Exp.	**2021AKN20009**
Lizitazio elektronikoa Licitación electrónica	☐ **Bai** / Sí ☒ **Ez** / No	**Tramitazioa** Tramitación	☒ **Ohikoa** / Ordinaria	☐ **Premiazkoa** / Urgente	

1.- AURREKARIAK

- Egungo udal liburutegiak espazio arazo eta gabezi larriak ditu, eta bi lokaletan kokatuta dago; horregatik, Andoaingo Udalak udal ekipamendu horretarako eraikin berri bat egiteko beharra mahaigaineratu du.

- Horretarako, lau leku posible hautatu ziren udal ekipamendu hori hartzeko, haien kokapenari, ezaugarriei eta liburutegia hartzeko potentzialari erreparatuz. Hirugarren puntuan zerrendatu dira.

Kontuan hartuta aplikagarriak diren legeditik eta sektoreko arauditik, eta aipatutako lekuei eragiten dieten hirigintzako baldintzetatik eratorritako mugak eta betekizunak, Hezkuntza eta Kultura lansailak erabaki du hautatutako lau lekuak aztertzeko eta baloratzeko aukeren aurreko azterketa bat egiteko zerbitzua kontratatzea, Udalak etorkizuneko udal ekipamenduarentzako kokapen egokiena identifikatu dezan.

2.- AGIRIAREN XEDEA

Agiri honen xedea da zehaztapen eta klausula teknikoak ezartzea, Andoaingo etorkizuneko udal liburutegiaren kokalekua zehazteko aukeren aurreko azterketa idazteko zerbitzuaren kontratua arautuko dutenak.

1.- ANTECEDENTES

- Ante los graves problemas de espacio y deficiencias que adolece la actual biblioteca municipal y su ubicación en dos locales diferentes, el Ayuntamiento de Andoain se ha planteado la necesidad de construir un nuevo edificio que albergue dicho equipamiento municipal.
- Para ello, se procedió a preseleccionar tres posibles emplazamientos para albergar el futuro equipamiento municipal, en atención a su ubicación, características y potencial para albergar el futuro equipamiento, y cuya relación se recoge en el punto tercero siguiente.

Teniendo en cuenta tanto las limitaciones y condicionantes derivados de la legislación y normativa sectorial de aplicación, como los condicionantes urbanísticos que afectan a los citados emplazamientos, desde el Departamento de Educación y Cultura se ha acordado promover la contratación del servicio para la elaboración de un estudio previo de alternativas que analice y valore los tres emplazamientos preseleccionados, con el fin de que el Ayuntamiento pueda identificar el emplazamiento más adecuado destinado a albergar el futuro equipamiento municipal.

2.- OBJETO

El objeto del presente pliego es el establecimiento de las especificaciones y cláusulas técnicas que regirán el contrato del servicio de redacción del estudio previo de alternativas para la determinación de la ubicación de la futura biblioteca municipal de Andoain.

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

3.- KONTRATUAREN XEDEA

3.1.- EREMUA

Kontratuaren xede gisa ezarritako azterketa eremua Udalak aurretik hautatutako lekuetara mugatuko da. Jarraian zerrendatu dira, eta haien mugaketa fisikoa agiri honen eranskinean dago definituta:

- Makaldegia: HAPOko 1.17. HPJ azpieremua, 1 HEA "Alde Zaharra".
- Leizaur parkea/Jauregi baserria: HAPOko 1.15. JT "Jauregi baserria, 1 HEA "Alde Zaharra".
- HAPOko 1 HEA "Alde Zaharra" eremuko 1.11. HJ azpieremua.

3.2.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea da aukeren aurreko azterketa bat egitea, udal liburutegia kokatzeko aurretik hautatutako leku bakoitzaren bideragarritasuna eta egokitasuna ebaluatzeko, eta horien arteko analisi konparatibo bat egiteko, Udalak etorkizuneko ekipamendua jartzeko egokiena iruditzen zaion kokalekua aukeratu dezan. Kokaleku bakoitzaren analisian, ebaluatu egingo dira hauetatik eratorritako mugak eta betekizunak: aplikagarriak diren sektoreko legeditik eta arauditik; hirigintzako baldintzetatik eta baldintza teknikoetatik, agiri honetan definitutako beharretatik, irizpideetatik eta jarraibideetatik; kanpoko espazioen berrantolamendutik eta orain arte bertan garatutako erabileretatik; zenbatetsitako epe eta kostuetatik; eta ingurumenaren, genero ikuspegiaren eta ondare katalogatuaren irizpideetatik, hala badagokio.

4.- EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA ETA IRISMENA

Honako honetan dautza egin beharreko lanak: goian deskribatutako aukeren azterketa egitean, Andoaingo Udalak etorkizunean udal liburutegia jartzeko kokaleku egokiena erabakitzeko.

3.- ÁMBITO Y OBJETO DEL CONTRATO

3.1.- ÁMBITO

El ámbito del estudio que se plantea como objeto del contrato se circunscribirá a los emplazamientos preseleccionados por el Ayuntamiento que se relacionan a continuación y cuya delimitación física queda definida en el anexo adjunto al presente pliego:

- Makaldegia: subámbito ADP-1.17 del ámbito AIU-1 "Casco Viejo" del PGOU.
- Parque Leizaur/ caserío Jauregi: subámbito AI-1.15 "Caserío Jauregi" del AIU-1 "Casco Viejo " del PGOU.
- Subámbito AD-1.11 del AIU-1 "Casco Viejo" del PGOU (finca correspondiente a los antiguos "Cines Maiza").

3.2.- OBJETO DEL CONTRATO

El contrato tiene por objeto, mediante la elaboración de un estudio previo de alternativas, evaluar la viabilidad e idoneidad de cada uno de los emplazamientos preseleccionados para acoger la futura biblioteca municipal y realizar un análisis comparativo entre los mismos, de manera que el Ayuntamiento pueda proceder a la elección del emplazamiento que considere más adecuado para la implantación del futuro equipamiento. El análisis de cada emplazamiento evaluará las limitaciones y condicionantes derivados de la legislación y normativa sectorial de aplicación, los condicionantes urbanísticos, técnicos, la capacidad de acoger el programa de necesidades, criterios y directrices definidos en el presente pliego, la reordenación de los espacios exteriores y de los usos hasta ahora desarrollados en los mismos, los plazos y los costes estimados, así como criterios ambientales, de perspectiva de género y del patrimonio catalogado, dado el caso.

4.- DESCRIPCIÓN Y ALCANCE DE LOS TRABAJOS A REALIZAR

Los trabajos a realizar consistirán en la redacción del estudio de alternativas arriba señalado, con el fin de que el Ayuntamiento de Andoain pueda determinar la alternativa de ubicación más idónea destinada a albergar el futuro edificio destinado a biblioteca municipal.

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

Aukeren azterketak aurretik hautatutako kokalekuak aztertuko ditu, esku arteko aukerak haztatzeko analisiari heldu ahal izateko, azkenean proposatutako aukera zehatz-mehatz arrazoituz. Analisi horrek, gutxienez, honako hauek hartu beharko ditu aintzat:

- Kokaleku bakoitza aztertzea Andoaingo hiri sarean duen kokapenari erreparatuz, kontuan hartuta, besteak beste, hurbil egotea biztanle gehien dituzten udalerriko guneetatik, bide irisgarri nagusietatik eta oinezkoen edo motorrik gabeko mugikortasunaren beste modalitate batzuen trafiko fluxuetatik; garraio publikoaren bitartez heldu ahal izatea; inguruko irisgarritasun baldintzak; seguruak ez direla hauteman daitekeen bideak ez sortzea, kokapenagatik ekipamendu hori kolektibo jakin batzuek gutxiago erabiltzea ekarriko luketenak; edo kokaleku horrek jarduera erakartzeko polo bat sortzeko duen aukera, inguruko hiri dinamizazio eta birgaitzerako laguntza gisa balioko duena.
- Kokaleku bakoitza genero ikuspegitik aztertzea, kontuan hartuta espazioaren erabilera guztiak eta emakumeek eta gizonak proposatutako kokalekuen inguruan egiten dituzten ibilbideak, baita berdin erabiltzeko eta sartzeko oztopoak eta kokaleku bakoitzerako proposatu daitezken irtenbideak ere, populazioaren ezaugarri soziodemografikoen arabera. Kontuan hartu beharko da gizon-emakumeek espazioa ezberdin erabiltzen dutela, eta mugikortasun eredu ezberdinak dituztela. Segurtasun pertzepzioari lotuta aurreko puntuan aipatu ditugun baldintzatzaileek emakumeei eragotzi egiten diete espazio jakin batzuk askatasunez erabiltzea, baina, horrez gain, garraio publikoa gehiago erabiltzen dute eta oinez gehiago ibiltzen dira, oro har, etxeko zaintzari edo kontsumoari lotutako gaiak tarteko, eta, gizonak, aldiz, gehiago mugitzen dira ibilgailu pribatuz, laneko arrazoiengatik. Emakumeek, gainera, ibilbide ez-linealak egiten dituzte, hainbat jarduera egiteko baliatzen dituztenak, eta gehiago mugitzen dira adingabeekin,

El estudio de alternativas analizará los emplazamientos preseleccionados de manera que se pueda abordar un análisis de ponderación de las alternativas consideradas, con una motivación detallada de la opción finalmente propuesta. Dicho análisis deberá tener en cuenta, como mínimo, las siguientes cuestiones:

- Análisis de cada emplazamiento desde el punto de vista de su ubicación dentro de la trama urbana de Andoain, teniendo en cuenta el factor proximidad en relación con las zonas del municipio con mayor peso poblacional y con los principales itinerarios accesibles y flujos de tráfico peatonal u otras modalidades de movilidad no motorizada, la posibilidad de acceder con transporte público, las condiciones de accesibilidad del entorno, la no generación de itinerarios que puedan ser percibidos como inseguros que hagan que determinados colectivos hagan un menor uso de dicho equipamiento debido a su ubicación, o la vocación del emplazamiento para generar un polo tractor de actividad que sirva de apoyo para la regeneración urbana de su entorno, entre otros.
- Análisis de cada emplazamiento desde una perspectiva de género, teniendo en cuenta los diferentes usos del espacio y los diferentes trayectos que realizan mujeres y hombres en torno a las ubicaciones propuestas, así como los obstáculos encontrados para un uso y acceso igualitario al mismo y las posibles soluciones que podrían considerarse en cada emplazamiento, en función de las características sociodemográficas de la población. Se deberá tener en cuenta que mujeres y hombres hacen un uso diferenciado del espacio y tienen patrones de movilidad distintos. Además de los condicionantes señalados en el punto anterior ligados a la percepción de seguridad, que impide a las mujeres utilizar con libertad ciertos espacios, estas también utilizan más el transporte público y se desplazan más a pie, en general también, más por cuestiones ligadas al cuidado o el consumo doméstico, mientras que los hombres se desplazan más en vehículo privado y por motivos laborales. Las mujeres, además, realizan trayectos no lineales, aprovechándolos para realizar diferentes actividades y se desplazan más con menores,

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

mendekotasuna duten pertsonekin edo orgekin, poltsekin eta antzeko zamekin. Beraz, aintzat hartu beharko litzateke puntu kritikoak ez sortzea, baita mugikortasunarekin eta espazioaren erabilerarekin lotutako beste elementu horiek ere, eraikinaren beraren kokapena aztertzeko.

- Kokaleku bakoitzaren ezaugarrien analisia, kontuan hartuz haren azaleraren edukiera, eta haren forma, topografia, proposatutako beharren programa hartzeko gaitasuna, beharren programa bi solairutan garatzeko aukera, orientazioa, kanpoko zarata mailak, etorkizunean handitzeko aukera, ingurumenaren inguruko oharrak eta abar.

- Aurreikusitako eraikina eta beharren programa ezartzearen bideragarritasuna, kokaleku bakoitzari eragiten dioten sektoreko araudiaren eta legediaren ikuspegitik (Uraren Legea, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LAPa, Trenbide Sektorearen Legea, Trenbide Sektorearen Erregelamendua eta abar), baita indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ikuspegitik ere.
- Kokaleku bakoitzaren gaitasuna, planteatutako eraikinek etorkizuneko liburutegia diseinatzeko agiri honen 5. apartatuan definitzen den beharren programa betetzekoa.

- Inguruan esku hartzeko beharraren analisia eta, hala badagokio, esku hartzeko proposamena, horretarako kontuan hartuta udaleko hiri plangintzaren aurreikuspenak eta sektoreko legeditik eratorritako mugak, baita agiri honen 5. apartatuan definitutako beharren programa ere:

    - Makaldegia kokalekua: proposamenean irtenbide posible bat sartu beharko da bateragarri egiteko etorkizuneko ekipamendua ezartzea eta ingurua uholde eremua izatea, bertako aparkamendu beharra eta azoka ibiltaria edo aldi

personas dependientes o cargas tipo carros, bolsas, etc. Sería necesario, por tanto, tener en cuenta la no generación de puntos críticos, y también estos otros elementos relacionados con la movilidad y el uso del espacio de cara a analizar la ubicación del edificio en cuestión.

- Análisis de las características de cada emplazamiento, teniendo en cuenta su cabida superficial, forma, topografía, capacidad de acogida del programa de necesidades propuesto, posibilidad de desarrollar el programa de necesidades en dos plantas, orientación, niveles de ruido existentes en el exterior, posibilidad de futuras ampliaciones, consideraciones ambientales, etc.
- Análisis de la viabilidad de implantación del edificio y del programa de necesidades previstos, desde el punto de vista de la normativa y legislación sectorial que afecta a cada emplazamiento (Ley de Aguas, Reglamento del Dominio Público Hidráulico, Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, P.T.S. de ordenación de los ríos y arroyos de la CAPV, Ley del Sector Ferroviario, Reglamento del Sector Ferroviario, etc.), así como desde el punto de vista del Plan General de Ordenación Urbana vigente.
- Análisis de la capacidad de cada emplazamiento para que los edificios que se planteen puedan dar cumplimiento al programa de necesidades de la futura biblioteca que se definen en el apartado 5 del presente pliego.
- Análisis de la necesidad de intervención en el entorno y dado el caso, propuesta de intervención, teniendo en cuenta para ello tanto las previsiones del planeamiento urbanístico municipal y las limitaciones derivadas de la legislación sectorial, así como el programa de necesidades definidos en el apartado 5 del presente pliego:
    - Emplazamiento de Makaldegia: la propuesta deberá contemplar una posible solución que compatibilice la implantación del futuro equipamiento con el carácter inundable de la zona y las necesidades de aparcamiento existentes en la misma, así como el desarrollo del mercado ambulante u otros eventos

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

baterako beste ekitaldi batzuk garatzea.
- Leizaur parkea/Jauregi baserria kokalekua: proposamenean aztertu egin beharko da etorkizuneko ekipamendua ezartzea Plan Orokorraren Ondarearen Katalogoan sartutako Jauregi baserria mantentzearekin eta HAPOan eremu horretarako aurreikusitako bizitokiak garatzea bateragarria den. Eremua antolatzeko gutxi gorabeherako proposamen bat definitu beharko da.

- Kokaleku bakoitzak agiri honetan ezarritako irizpideen, jarraibideen edo helburuen arabera aurreikusitako beharren programa garatu ahal izateko eraikin bat hartzeko duen gaitasuna baloratzeko, azterketan kokaleku bakoitzerako arkitektura proposamen eskematiko bat garatu beharko da, oinplanoaren banaketaren, sekzioen eta altxatu bolumetriko eskematikoena, baita ukitutako kanpoko eremu edo inguruaren proposamena bat ere.

- Etorkizuneko ekipamendua kokaleku bakoitzean eraikitzeko eta abian jartzeko aurreikusitako epeak. Eraikitzeko eta eraikuntza proiektua idazteko epeez beraiez gain, kontuan hartu beharko dira ere kasu bakoitzean beharrezkotzat jotako hirigintza tresnak sortzeko eta tramitatzeko epeak (HAPOaren aldaketa puntuala, Hiri Antolamenduko Plan Berezia edo Xehetasun Azterketa, desjabetze espedienteak eta abar), baita nahitaezko sektoreko baimenak eskuratzekoak ere (Ura, Kantauriko Ur Konfederazioa, Adif eta Sustapena).

- Kokaleku bakoitzean aurreikusitako jarduketen kostu ekonomikoen zenbatespena: eraikuntza kostuak, ordainsari teknikoak, desjabetzeen kostuak, lurzorua erostekoak, eta inguruko esku hartzeari dagozkion hirigintza kostuak.

Udal zerbitzu teknikoek gainbegiratuta egingo dira lanak, eta Udalak azterketa idazteko prozesuan eskatutako bileretan parte hartzea ere barruan

temporales.
- Emplazamiento del parque Leizaur / caserío Jauregi: la propuesta deberá analizar la compatibilidad de la implantación del futuro equipamiento con la preservación del caserío Jauregi, incluido en el Catálogo de Patrimonio del Plan General y el desarrollo residencial previsto para el ámbito desde el PGOU, definiendo una propuesta orientativa de ordenación para el mismo.

- Para poder valorar la capacidad de cada emplazamiento para acoger un edificio en el que se pueda desarrollar el programa de necesidades previsto atendiendo a los criterios, directrices u objetivos establecidos en el presente pliego, el estudio deberá desarrollar una propuesta arquitectónica esquemática para cada uno de los emplazamientos, con distribuciones por plantas, secciones y alzados volumétricos esquemáticos, así como una propuesta de ordenación del ámbito o entorno exterior afectado.
- Plazos temporales previstos para la construcción y puesta en funcionamiento del futuro equipamiento en cada emplazamiento. Además de los plazos de construcción y de redacción del proyecto de construcción propiamente dichos, también se deberán tener en cuenta, tanto los plazos necesarios para la elaboración y tramitación de los instrumentos urbanísticos que se estimen necesarios en cada caso (Modificación puntual del PGOU, Plan Especial de Ordenación Urbana u Estudios de Detalle, expedientes de expropiación, etc.), como los estimados para la obtención de las preceptivas autorizaciones sectoriales (Ura, Confederación Hidrográfica del Cantábrico, Adif y Fomento).
- Estimación de los costes económicos de la actuación previstos en cada emplazamiento: costes de construcción, honorarios técnicos, coste de expropiaciones, compra de suelo o indemnizaciones, costes de urbanización correspondientes a la intervención en el entorno.

Los trabajos se realizarán bajo la supervisión de los servicios técnicos municipales y también comprenden la asistencia a las reuniones que se promuevan desde el Ayuntamiento durante el proceso de redacción del

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

dago. Halaber, ukitutako sektoreko administrazioetako zerbitzu teknikoekin egin beharreko bilera guztietara bertaratu beharko da, haiek ezarritako irizpideak eta jarraibideak biltzeko, etorkizuneko udal ekipamenduaren proposamena bideragarria izan dadin aplikagarriak diren sektoreko legedien ikuspegitik. Udal kartografia osatzea beharrezkoa bada, lan hori adjudikaziodunaren kargu egongo da.

estudio. Comprenden, asimismo, la asistencia a cuantas reuniones sea necesario celebrar con los servicios técnicos de las administraciones sectoriales afectadas, con el fin de recabar los criterios y pautas que se marquen desde las mismas al objeto de garantizar que la propuesta del futuro equipamiento municipal sea viable desde el punto de vista de las respectivas legislaciones sectoriales de aplicación. En el caso de que resultase preciso la complementación de la cartografía municipal existente, dicha labor correrá a cargo del adjudicatario.

5.- BEHARREN PROGRAMA

Aukeren azterketa idazteko, kontuan hartu beharko da jarraian deskribatutako beharren programa:

Harrera eta sustapen gunea:	**370 m²**
- Sarrera:	130 m²
- Balio anitzeko espazioa-1:	80 m²
- Kultur elkarte balio anitzeko espazioa:	90 m²
- Biltegia:	10 m²
- Laguntza gunea:	25 m²
- Prestakuntza gunea:	35 m²
Gune orokorra edo nagusia:	**735 m²**
- Prentsa eta aldizkari gunea:	110 m²
- Informazio gunea eta funts nagusia	500 m²
- Musika eta ikus-entzunezkoen gunea	60 m²
- Funts espezializatuen gunea:	65 m²
Haurren gunea	**210 m²**
- Haurren gunea eta informazio puntua:	210 m²
Langileen gunea:	**125 m²**
- Zuzendaritzako bulegoa:	20 m²
- Lan gunea eta dokumentuen biltegia:	75 m²
- Atseden gunea:	15 m²
- Biltegia	5 m²

Lokalen azalera, guztira: 1.440 m²

Komunen, pasaguneen, igogailuen, areto eta gela teknikoen edo zerbitzukoen azalera (lokalen azaleraren % 30) 432 m2

5.- PROGRAMA DE NECESIDADES

Para la elaboración del estudio de alternativas se deberá tener en cuenta el programa de necesidades descrito a continuación:

Zona de recepción y promoción:	**370 m2**
- Vestíbulo:	130 m2
- Espacio polivalente-1:	80 m2
- Esp. polivalente asoc. culturales	90m2
- Almacén:	10 m2
- Zona de apoyo:	25 m2
- Zona de formación:	35 m2
Área general o principal:	**735 m2**
- Zona de prensa y revistas:	110 m2
- Zona de información y fondo general	500 m2
- Zona de música y audiovisuales:	60 m2
- Zona de fondos especializados:	65 m2
Zona infantil:	**210 m2**
- Fondo infantil y punto de inf.:	210 m2
Zona de personal:	**125 m2**
- Oficina de dirección:	20 m2
- Área trabajo y almacén de docum.:	75 m2
- Zona de descanso:	15 m2
- Almacén:	15 m2
Superficie total locales	**1.440 m2**
Superficie destinada a aseos, zonas de paso, ascensores, salas y cuartos técnicos o de servicio (30% de la superficie de locales):	**432 m2**
SUPERFICIE TOTAL	**1.872m2**

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

- Azalera, guztira: 1.872 m²

6.- KONTRATUAREN FASEAK ETA FASEAK EGIKARITZEKO EPEAK

Hona hemen kontratuaren xede diren lanaren faseak eta horiek egikaritzeko epe partzialak:

Lehen fasea:

- Aurreko lanak eta datuak hartzea.
- Kokaleku bakoitzaren analisia eta diagnosia, agiri honetan zehaztutako faktoreak kontuan hartuta.
- Kasu bakoitzean aplikagarriak diren sektoreko legeditik eta hirigintzako arauditik eratorritako eraginak eta mugak identifikatzea eta zedarritzea.
- Beharren programarekin bat etortzeko aurreko arkitektura proposamena, kokaleku bakoitzarentzat, ukitutako ingurua antolatzeko proposamena barne.

Fase hori egikaritzeko epea 2 hilabetekoa izango da, talde idazleari lanen adjudikazioa jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Bigarren fasea:

- Egindako arkitektura proposamenen bideragarritasunaren inguruan ukitutako sektoreko administrazioei aplikagarria den sektoreko legediari buruzko kontsulta egitea. Azterlanera beharrezko aldaketak eta doikuntzak txertatzea, aipatutako administrazioaren zerbitzu teknikoek emandako jarraibideen eta irizpideen arabera.
- Fase hau egikaritzeko epea hilabetekoa izango da, liburutegiaren Jarraipen Mahaiak egindako proposamenak onartzen direnetik hasita (ez da kontuan hartuko ukitutako sektoreko administrazioek beren irizpideak eta jarraibideak helarazteko behar duten denbora).

Hirugarren fasea:

- Azterlanaren behin betiko dokumentua egitea, eta, bertan, aukera bakoitzerako aurreikusitako kostuen eta epeen zenbatespen bat, baita

6.- FASES DEL CONTRATO Y PLAZOS DE EJECUCIÓN DE LAS FASES

Las fases en las que se dividen las labores objeto del contrato y los plazos parciales para su ejecución son las que se exponen a continuación:

Primera Fase:

- Labores previas y toma de datos.
- Análisis y diagnóstico de cada uno de los emplazamientos, teniendo en cuenta los factores determinados en el presente pliego.
- Identificación y delimitación de las afecciones y limitaciones derivadas de la legislación sectorial y normativa urbanística de aplicación en cada caso.
- Propuesta arquitectónica previa de encaje del programa de necesidades para cada uno de los emplazamientos, incluida la propuesta de ordenación del entorno afectado.

El plazo de ejecución de esta fase será de 2 meses desde la notificación al equipo redactor de la adjudicación de los trabajos.

Segunda fase:

- Contraste con las administraciones sectoriales afectadas sobre la viabilidad de las propuestas arquitectónicas planteadas en relación con la legislación sectorial de aplicación. Incorporación al estudio de las modificaciones y ajustes precisos de acuerdo con las directrices y criterios marcados los servicios técnicos de las citadas administraciones.

- El plazo de ejecución de esta fase será de 1 mes, a contar desde la aprobación de las propuestas planteadas por la Mesa de Seguimiento (no se tendrá en cuenta el tiempo que en su caso lleve a las administraciones sectoriales afectadas dar traslado de sus criterios y directrices).

Tercera fase:

- Elaboración del documento definitivo del estudio, en el que se incluirá una estimación de los costes y plazos previstos para cada alternativa, así como un análisis de ponderación de las alternativas

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

kontuan hartutako aukeren haztapenaren analisi bat ere, azkenean proposatutako aukeraren arrazoiketa xehea barne.

Fase hori egikaritzeko epea 2 hilabetekoa izango da.

Faseak egikaritu bitartean, kontratuaren adjudikazioduna bertaratu egin beharko da Udalak lanen jarraipena egiteko eta horiek koordinatzeko deitutako saio eta bileretara, baita ukitutako sektoreko administrazioetako zerbitzu teknikoekin egin beharreko bilera guztietara ere.

7.- LANEN GUTXIENEKO DOKUMENTAZIOA

Xedea erdiesteko dokumentazio gehigarria berariaz eskatu ahalko den arren, lanek, gutxienez, jarraian zerrendatutako dokumentuak izan beharko dituzte, eta bertako edukia ere agiri honetan zehaztutako helburuen eta irizpideen araberakoa izan beharko da.

1.- Hasierako dokumentua (1. fasea):

a).- Kokaleku bakoitzaren analisia/diagnosia jasotzen duen memoria, gutxienez alderdi hauek jorratuko dituena:
- Sektorekako eraginak
- Hirigintzako eraginak
- Kokaleku bakoitzaren analisia, agiri honen 4. puntuan adierazitako faktoreak kontuan hartzen dituena.
- Kasu bakoitzean hautemandako arazoak eta hautemandako arazoak ebazteko helburuarekin proposatutako neurri edo jarduketa ildo posibleak.

b).- Kokaleku horrek aurreikusitako beharren programa hartzeko duen gaitasunaren analisia. Ukitutako eremuaren arkitektura eta antolamendu proposamena:
- Planteatutako proposamen bakoitzaren deskribapen eta justifikazio memoria.
- Proposamenen dokumentazio grafikoa: oinplanoaren banaketaren, sekzioen eta altxatu bolumetrikoen plano eskematikoak, proposamena ezin hobeto ulertzeko beharrezko gutxieneko eskalan,

consideradas, con una motivación detallada de la opción finalmente propuesta.

El plazo de ejecución de esta fase será de 2 meses.

Durante la ejecución de las diferentes fases el adjudicatario del contrato deberá asistir a las sesiones y reuniones que se promuevan desde el Ayuntamiento para el seguimiento y coordinación de los trabajos, así como a cuantas reuniones sea necesario celebrar con los servicios técnicos de las administraciones sectoriales afectadas.

7.- DOCUMENTACIÓN MÍNIMA DE LOS TRABAJOS

Sin perjuicio de la documentación adicional que específicamente se requiera en atención a la finalidad perseguida, los trabajos deberán estar integrados, como mínimo, por los documentos que se señalan a continuación, cuyo contenido vendrá determinado a su vez por los objetivos y criterios especificados en el presente pliego.

1.- Documento inicial (fase 1):

a).- Memoria con un análisis/diagnóstico de cada uno de los emplazamientos, que desarrollará como mínimo los siguientes apartados:
- Afecciones sectoriales
- Afecciones urbanísticas
- Análisis de cada emplazamiento teniendo en cuenta los factores señalados en el punto 4 del presente pliego.
- Identificación de la problemática detectada en cada caso y propuesta de posibles medidas o líneas de actuación con el objeto de resolver la problemática detectada.

b).- Análisis de la capacidad del emplazamiento para acoger el programa de necesidades previsto. Propuesta arquitectónica y de ordenación del entorno afectado:
- Memoria descriptiva y justificativa de cada propuesta planteada.
- Documentación gráfica de las propuestas: planos esquemáticos de distribución en planta, secciones y alzados volumétricos a escala mínima necesaria para el perfecto entendimiento de la propuesta, sin acotar,

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

kotatu gabe, beharren programa garatzeko planteatutako pieza eta espazioak identifikatzen dituztenak.

2.- Behin betiko dokumentua:

a).- Kokaleku bakoitzaren analisi/diagnosia duen memoria.

b).- Kokaleku bakoitzak beharren programa hartzeko eta agiri honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzeko duen gaitasunaren justifikazioa. Kokaleku bakoitzaren arkitektura eta antolamendu proposamena:

- Deskribapen memoria. Bertan, labur azaldu beharko dira proposatutako eraikinaren eta kanpoko antolamenduaren funtsezko alderdiak eta ezaugarri orokorrak, eta aukera eman beharko du, emandako dokumentazio grafikoarekin batera, proposamena osorik ulertzeko.
- Egindako proposamenaren justifikazio memoria, aplikagarria den sektoreko legediaren, hirigintzaren, funtzionalitatearen eta programaren ikuspegitik, baita agiri honetan jasotako gainerako baldintzenetik ere.
- Dokumentazio grafikoa:
  - Oinplanoaren banaketaren, sekzioen eta altxatu bolumetrikoen plano eskematikoak, proposamena ezin hobeto ulertzeko beharrezko gutxieneko eskalan, kotatu gabe, beharren programa garatzeko planteatutako pieza eta espazioak identifikatzen dituztenak.
  - Kokapen bakoitzaren planoa. Bertan jasoko da arkitektura proposamena, aplikagarria den sektoreko arauditik eratorritako zehaztapenekin batera (uren alorrean indarrean dagoen araudiaren kasuan: eraikinaren ibilgu publikorako gutxieneko atzerapena, ezohiko uraldiek ukitutako guneen zedarritzea 10, 500 eta 500 urteko itzulera denboretarako, bakoitzaren sakonera adierazita eta lehentasunezko fluxu lerroa markatuta. Trenbidearen sektorean indarrean dagoen legediaren

con identificación de las diferentes piezas y espacios en los que se plantea desarrollar el programa de necesidades.

2.- Documento definitivo:

a).- Memoria con un análisis/diagnóstico de cada uno de los emplazamientos.

b).- Justificación de la capacidad de cada emplazamiento para acoger el programa de necesidades y dar cumplimiento al resto de condiciones establecidas en el presente pliego. Propuesta arquitectónica y de ordenación de cada emplazamiento:

- Memoria descriptiva, en la que se expongan de manera sucinta los aspectos fundamentales y las características generales del edificio y de la ordenación exterior propuestos, que permita, junto con la documentación gráfica que se aporte, el entendimiento completo de la propuesta.
- Memoria justificativa de la solución propuesta, desde el punto de vista de la legislación sectorial de aplicación, urbanístico, funcional y programático y del resto de condiciones establecidas en el presente pliego.
- Documentación gráfica:
  - Planos esquemáticos de distribución en planta, secciones y alzados volumétricos a la escala mínima necesaria para el perfecto entendimiento de la propuesta, sin acotar, con identificación de las diferentes piezas y espacios en los que se plantea desarrollar el programa de necesidades.
  - Plano de cada emplazamiento en el que se recoja la propuesta arquitectónica junto con las determinaciones derivadas de la normativa sectorial de aplicación (en el caso de la normativa vigente en materia de aguas: retiro mínimo de la edificación al cauce público, delimitación de las zonas afectadas por avenidas extraordinarias para los períodos de retorno de 10, 100 y 500 años, con indicación de sus diferentes calados y delimitación de la línea de flujo preferente. En el caso de la legislación vigente en materia del sector ferroviario:

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

kasuan: trenbidearen jabari publikoko marra eta eraikinaren marra mugatzea).
- Proposamen bakoitzaren kostuaren zenbatespena, honako kontzeptu hauetan xehakatuta:
  - Eraikinaren kostu zenbatetsia.
  - Lotutako hirigintza lanen kostu zenbatetsia.
  - Desjabetzeen eta kalte ordainen kostu zenbatetsia.
  - Ordainsari teknikoen kostu zenbatetsia (plangintza edo beharrezkotzat jotako beste dokumentu batzuk, desjabetze espedienteak, proiektua idaztea, obra zuzendaritza eta abar).
  - Eraikina egiteko zenbatetsitako epeak, hala badagokio beharrezko hirigintza tresnak sortzeko eta tramitatzeko beharrezkoak barne, baita kasu bakoitzeko sektoreko baimenak lortzekoak ere.

c).- Proposatutako aukeren haztapen analisi konparatiboa, azkenean proposatutako aukera behar bezala justifikatuta.

delimitación de la línea de dominio público ferroviario y línea de edificación).
- Estimación del coste de cada propuesta, desglosado en los siguientes conceptos:
  - Coste estimado de la edificación.
  - Coste estimado de las obras de urbanización asociadas.
  - Coste estimado de expropiaciones e indemnizaciones.
  - Coste estimado de honorarios técnicos (planeamiento u otros documentos que se estimen precisos, expedientes de expropiación en su caso, redacción de proyecto y dirección de obra, etc.).
  - Plazos estimados para la construcción del edificio, incluidos los necesarios para la elaboración y tramitación de los instrumentos urbanísticos que, dado el caso, resulten precisos, así como para la obtención de las autorizaciones sectoriales que corresponda en cada caso.

c).- Análisis de ponderación comparativo de las alternativas consideradas, con una motivación detallada de la opción finalmente propuesta.

8.- UDALAK EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Andoaingo Udalak enpresa adjudikaziodunaren eskura jarriko du honako dokumentazio hau:

- Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren planimetria, dwg formatuan.
- Udalerriaren kartografia topografiko digitalizatua, dwg formatuan.
- Andoaingo zarataren mapa.
- Andoaingo Udalak Urari eta Kantauri Ekialdeko Konfederazio Hidrografikoari egindako kontsulta, Makaldegia kokalekuan udal liburutegirako eraikin bat egiteko aukeraren ingurukoa.
- Udaleko Hezkuntza eta Kultura lansaileko zerbitzu teknikoek egindako txostenak, udal liburutegiari buruzkoak.
- Udal arkitektoak etorkizuneko udal liburutegiaren kokapen posibleen inguruan egindako txostena.

8.- DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR EL AYUNTAMIENTO.

El Ayuntamiento de Andoain pondrá a disposición de la empresa adjudicataria la siguiente documentación:

- Planimetría del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain, en formato dwg.
- Cartografía topográfica digitalizada del municipio en formato dwg.
- Mapa de ruido de Andoain.
- Consulta realizada por el Ayuntamiento de Andoain a Ura y la Confederación Hidrográfica del Cantábrico Oriental en relación con la posibilidad de construir un edificio destinado a biblioteca municipal en el emplazamiento de Makaldegia.
- Informes elaborados por los servicios técnicos del Departamento de Educación y Cultural del Ayuntamiento en relación con la biblioteca municipal.
- Informe elaborado por el arquitecto municipal en relación con las posibles ubicaciones para la futura biblioteca municipal.

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

- Jauregi baserriaren balorazio txostena, Andoaingo Udalarentzat 2012ko martxoan egindakoa.

- Informe de valoración del caserío Jauregi elaborado para el Ayuntamiento de Andoain en marzo de 2012.

9.- LANEN AURKEZPENA

Fase bakoitzean aurkeztutako dokumentazioa paperean eta euskarri informatikoan aurkeztuko da. Planoak Autocadekin bateragarria den fitxategi sistema batean aurkeztuko dira, eta testuak, Word formatuan. Halaber, dokumentu osoaren kopia bat pdf formatuan aurkeztu beharko da. Egin beharreko dokumentuaren paperezko 6 kopia aurkeztuko dira. Dokumentuak autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira.

9.- PRESENTACIÓN DE LOS TRABAJOS

La documentación que se presente en cada una de las fases se presentará en papel y soporte informático. Los planos se presentarán en un sistema de archivo compatible con Autocad y los textos en formato Word. Se deberá presentar asimismo una versión de todo el documento en formato pdf. Se entregarán 6 copias en formato papel del documento a realizar. Los documentos se deberán presentar en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma.

10.- LANEN GAINBEGIRAKETA ETA JARRIPENA

Azterlana idazteko lanak Andoaingo Udalaren udal zerbitzu teknikoek gainbegiratuta egingo dira. Honako hauek izango dira, besteak beste, zerbitzu horien lanak:

- Agiri honetan eta adjudikaziodunarekiko kontratuan ezarritakoak osatzeko dagozkion lan irizpideak ezartzea.
- Lanak idazteko prozesua, haien kalitatea eta proposatutako helburuen erdieste maila fiskalizatzea, modu egokian egikaritzeko beharrezko jarraibideak markatuz, hala badagokio.
- Lanen aurkezpen partzialak eta osoa kontrolatzea, fiskalizatzea eta jasotzea, eta, hala badagokio, konpondu beharreko gabeziak identifikatzea.
- Zuzendaritzak enpresa adjudikaziodunari kontratuaren xedearen inguruan duen informazio guztia emango dio.
- Prozesua modu egokian garatzeko beharrezko koordinazioa eta antolamendua, eta enpresa adjudikaziodunak eskatutako bilera guztiak.

Enpresa adjudikaziodunak, azterlana egitearen

10.- SUPERVISIÓN Y SEGUIMIENTO DE LA ELABORACIÓN DE LOS TRABAJOS

Los trabajos de redacción del estudio se realizarán bajo la supervisión de los servicios técnicos municipales del Ayuntamiento de Andoain, cuyas labores incluirán, entre otras:

- La determinación de los correspondientes criterios de trabajo, complementarios de los establecidos, tanto en el presente Pliego como en el contrato con el adjudicatario.
- La fiscalización del proceso de redacción de los trabajos, de la calidad de los mismos, y del grado de cumplimiento de los objetivos propuestos, marcando en su caso las directrices que resulten necesarias para su correcta ejecución.
- El control, fiscalización y recepción de las entregas parciales y del conjunto de los trabajos, e identificación, en su caso, de las deficiencias a subsanar.
- La dirección facilitará a la empresa adjudicataria cuanta información disponga de la relacionada con el objeto del contrato.
- La coordinación y organización conjunta necesarios para un desarrollo apropiado del proceso y cuantas reuniones sean demandadas por la empresa adjudicataria.
-

La empresa adjudicataria, a través de la persona responsable de la elaboración del estudio, informará

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

arduradunaren bitartez, udal zerbitzu teknikoekin adostutako maiztasunez emango du kontratuaren xede diren lanen egoeraren eta garapenaren berri, udaletxean bertan egingo diren aurrez aurreko bileren bidez. Kontratuan jasotakotzat joko dira lanak egiteko beharrezko joan-etorrien eta dieten gastuak, udaletxean egindako edo ukitutako sektoreko administrazioetan egin beharreko bilerei dagozkionak barne.

con la periodicidad que se establezca con los servicios técnicos municipales sobre la marcha y desarrollo de los trabajos objeto del contrato, mediante reuniones presenciales que se realizarán en el propio Ayuntamiento. Se entienden incluidos en el contrato los gastos de desplazamiento y dietas necesarios para la elaboración de los trabajos, incluidos los correspondientes a las reuniones presenciales que se celebren en el Ayuntamiento o las que hayan de celebrarse con las administraciones sectoriales afectadas.

11.- LANEN JABETZA

Kontratu honen ondorioz egindako lanen eta dokumentuen jabetza intelektuala Andoaingo Udalarena izango da. Udalak osorik edo hein batean erreproduzitu edo dibulgatu ahalko ditu, egoki iritzitako moduan, hirugarrenen baimenik behar izanik gabe. Halaber, enpresa adjudikaziodunak ezin izango ditu erabili edo dibulgatu sortutako lanak eta dokumentuak, ezta haren emaitzak edo edukiak ere, prozesuaren ezein momentutan.

11.- PROPIEDAD DE LOS TRABAJOS

La propiedad intelectual de los trabajos y documentos que se realicen por razón del presente contrato será del Ayuntamiento de Andoain. El Ayuntamiento podrá reproducirlos o divulgarlos, total o parcialmente, en la forma que estime conveniente, sin necesidad de autorización de terceros. Asimismo, la empresa adjudicataria no podrá hacer uso o divulgación de los trabajos y documentos elaborados, ni de sus resultados o contenidos en ningún momento del proceso.

12.- KONTRATISTARI BETEBEHARRAK

Orientabide gisa, hona hemen honako hauek, gehiago egon daitezkeen arren:

1.- Kontratuari eskaintzan deskribatutako giza bitartekoak eta bitarteko materialak atxikitzea.
2.- Udalari aurreko 8. klausulan adierazitako kopia kopurua aurkeztea, behar bezala, karpetetan sartuta, baita jatorrizko dokumentazioa ere, euskarri informatikoan.
3.- Udalari jakinaraztea unean-unean lanen egoeraz, eta udal teknikariekin etengabe kontaktuan egotea.
4.- Udalak eskatutakoan informazioa ematea, lizitazioaren xede diren lanen inguruan sortutako arazoak eta zalantzak argitzeko, baita azterlaneko dokumentazioa idatzi bitartean bertan hautemandako akats materialak konpontzea ere, azken dokumentua aurkeztu arte.

12.- OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA

A título orientativo, no exhaustivo, se señalan las siguientes:

1.- Adscribir al contrato los medios humanos y materiales descritos en la oferta.
2.- Entregar al Ayuntamiento el número de copias señalado en la cláusula 8 anterior, debidamente encarpetados, así como la documentación original en soporte informático.
3.- Informar al Ayuntamiento del estado progresivo de la realización de los trabajos, manteniéndose en continuo contacto con los técnicos municipales.
4.- Informar a requerimiento del Ayuntamiento, en orden a la aclaración de problemas y dudas que le sean planteados en relación al trabajo objeto de la licitación, así como subsanar los errores materiales que se adviertan en la documentación del estudio durante la elaboración del mismo, hasta la presentación del documento final.
5.- Incorporar al documento nuevos documentos que

ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

5.- Dokumentuan egoki iritzitako dokumentu berriak txertatzea, dokumentuaren fase guztietan ukitutako sektoreko administrazioek emandako jarraibideen eta irizpideen ondorioz egin beharreko aldaketengatik behar direnak.

6.- Proposamenean adierazitako talde teknikoa mantentzea. Ezingo dira langile horiek aldatu Udalaren baimenik gabe.
Proiektuaren xede diren zeregin guztietarako gaitzen duen titulazio akademiko eta profesionala edukitzea, eta ofiziorako baldintza galdagarriak betetzea. Pertsona juridikoen kasuan, kontratuaren xede bakoitzerako teknikariak banaka izendatuko dira, eta gaitzen dituen titulazio gaitzailea izango dute.

7.- Ukitutako sektoreko administrazio guztiekin beharrezko bilerak, kudeaketak eta jarduketak egitea, bete nahi diren helburuak betetzeko, eta, horretarako, haiekin beharrezko koordinazio mekanismoak ezarriz.

se estimen procedentes como consecuencia de las modificaciones que en su caso resulten, fruto de las directrices y criterios que marquen las administraciones sectoriales afectadas las distintas fases del documento.

6.- Mantener el equipo técnico señalado en la proposición, sin que pueda modificar dicho personal sin consentimiento del Ayuntamiento.
Estar en posesión de la titulación académica y profesional habilitante para todos y cada uno de los cometidos objeto del proyecto y cumplir las condiciones exigibles para el ejercicio de la profesión. En caso de personas jurídicas, se designarán individualmente a los técnicos con su titulación habilitante para cada uno de los cometidos objeto del contrato.

7.- Mantener cuantas reuniones, gestiones y actuaciones sean necesarias ante las administraciones sectoriales afectadas para el cumplimiento de los fines que se desean obtener, estableciendo con las mismas los mecanismos de coordinación necesarios.

Eginbidea: Nik, idazkariak, egiten dudana aditzera emateko Baldintza Administratibo Berezien agiri hau **Tokiko Gobernu Batzarrak** onartu duela, Alkatetzak eskuordeturik, **2021/07/09**an egindako bilkuran hartutako erabaki bidez.

Diligencia: Que la extiendo yo, el Secretario de la Corporación, para hacer constar que el presente Pliego da Cláusulas Administrativas Particulares ha sido aprobado mediante acuerdo de **la Junta de Gobierno Local**, por delegación de Alcaldía, de fecha **09/07/2021**.

Idazkaria / El Secretario

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUeb2e96c5-9f00-4bfe-8d1d-d98236df6758**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910***